

ANDOAIN / Anjel Lertxundik 'Etxeko hautsa eleberria' aurkeztuko du liburutegian

Kilkerren sokaren hirugarren edizioak bigarren geldialdia egingo du gaur, arratsaldean, Andoainen. Bertan, Anjel Lertxundik 'Etxeko hautsa' eleberria aurkeztuko du udal liburutegian arratsaldeko 19:00etan, eta zeregin horretan Jorge Gimenez izango du bidelagun.

Franco hil aurreko azken urteetako giroarekin eta orduan narra tzaileak bizi izandako gertaera batekin hasten da liburua: ETako bi kide eraman behar izan zituen bere autoan herri batetik bestera. Hogei urte geroago orduan gertutakoari buruzko hausnarketa idazten dio alzheimerrak jota dagoen aitari.

Akademiak euskal literatura eta irakurzaletasuna sustatu eta bultzatzeko asmoz prestaturiko egitarauaren baitan garatu da Kilkerren soka eta urteko sorkuntza ezagutzera eman eta idazleei sorkun-tza hori irakurleekin partekatzeko aukera eskaintzea du helburu. Egitasmoaren hirugarren fase honetan lau liburu aurkezpen antolatu dira, Euskal Herriko lau herri ezberdinetan burutuko direnak. Ohikoa denez, saio horietan liburua aurkeztuko duen idazleak bidaide bat izango du alboan; honek liburua aurkeztuko du, irakurle gisa liburuaren balorazio bat eginez, eta zubi lana burutuko du idazlearen eta bertaratzen diren irakurleen artean.

Beste saioak

Hurrengo saioa azaroaren 22an izango da Erreenterian; bertan Antonio Casado da Rochak 'Esku ezkeraz' eleberria aurkeztuko du Oier Guillan alboan duela, eta azkena, azaroaren 24an, Larrabetzuko Kultur etxean, bertan Xabier Artolak 'Argi-itzalen neurria' eleberriari buruz hitzegingo duelarik.